

Irurtzunen, bi mila eta zortziko abenduaren bian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Xabier Unanua Goicoechea
Jose Peinado Cuesta
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkari naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi du Luis Enrique de La Calle Morenok.

AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2008ko azaroaren 4an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2008ko azaroaren 5az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

ZINEGOTZIA KARGUAZ JABETZEA

Hauteskunde-batzorde zentralak egindako agiria irakurri da; horretan, Irurtzungo Udaleko Nafarroa Bai udal-taldeko zinegotzia izendatu da Xabier Unanua Goicoechea, Arrate Zabalo Ochotorenaren ordezkari.

Jarraian, legeak agintzen dituen legezko izapideak beteta, Unanua jaunak bere karguaz jabetu, eta bilkurarekin bat egin du.

2008-2009rako ESKOLA GARRAIORAKO PROIEKTUA ONARTZEA

2008-2009rako eskola-garraiorako proiektuari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Hezkuntza Batzordeak 2008ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, aipatu proiektua onartzea erabaki da aho batez.

ATAKONDOA IKASTETXEKO ESKOLA KONTSEILURAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA

Hezkuntza Batzordeak 2008ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamenaren arabera, Atakondoa Ikastetxeko Eskola Kontseilurako ordezkaria Juan Jose Iriarte Vitoria izendatzea erabaki da; honek Arrate Ochoa Zabalo ordezkaturko du.

UDAL PLANA UC-2 UNITATEAN ALDATZEA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA

Udal Planeko UC-2 Unitatea aldatzeko proiektuari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2008ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez, alegia Udalbatzako kide kopuru legalaren erabateko gehiengoz: Udal Planeko UC-2 Unitatea aldatzeko proiektua, Fernando Andion Carbelledak sustatua, behin betikoz onartzea.

Puntu hau onartuta, Murugarren jaunaren iritziz, komenigarria litzateke hirigintza-unitateak aipatzen direnetan, horien kokapen zehatza egitea, edozein herritarrek unitate horiek identifikatzeko modua izan dezan; onartu berri horri dagokionez, UC-2 Unitatea Aldapa kaleari dagokiola aipa liteke.

ARTADIA KALEKO 2, 4 ETA 6 ERAIKINEN XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA

Artadia kaleko 2, 4 eta 6 zenbakia duten eraikinen xehetasun-azterketaren proiektuari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2008ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, aho batez onartu da Artadia kaleko 2, 4 eta 6

zenbakia duten eraikinen xehetasun-azterketaren proiektua behin betikoz onartzea.

2008ko AURREKONTUA ALDATZEA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA

2008ko aurrekontua aldatzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, hau da, Iturraskarri proiekturako 533.763 kontu-sailean 7.250,00 euro gaitzea, 4.6 funtzio-multzoko lotura juridikoko poltsaren kargura finantzatuko dena, eta, halaber, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko azaroaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, 2008ko aurrekontuan aipatu aldaketa egitea onartu da aho batez.

KALE BERRIEN IZENAK

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko azaroaren 28an egindako bilkuran onartutakoaren arabera, honako hau erabaki da aho batez: dagoeneko urbanizatuta dauden S1-U.8 Unitateko kaleari, alegia Lizarra kaletik Itxesia igerilekuetatik alboz albo dagoen eremuan barna S1-U.9 Unitaterantz doanari, "Iturtxoko kalea", eta Lizarra kaletik abiatuta aurrekora Andia eta Herria kaleen ondoko eremutik iristen den kaleari "Beheitiko Erreka kalea" deitzea.

GIZARTE ARLORAKO DIRU-LAGUNTZAK

Aurrekontu Parte-hartzaileak izeneko herritar-taldeari, honek herritar guztiei banatuko zaien herriko taldeei buruzko katalogoa prestatzeagatik, diru-laguntza emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko azaroaren 28an egin zuen bilkuran onartutako proposamena aztertuta, aho batez erabaki da aipatu herritar-taldeari 2.825,00 euroko diru-laguntza ematea; horietatik 1.680,00 euro 2008ko Aurrekontuko 463.2270704 kontu-sailearen kargura, eta 1.145,00 euro aurrekontu bereko 469.48209 kontu-sailearen kargura.

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO MOZIOA

Udalburuak, 2008ko azaroaren 28an egin zen bilkuran Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeko kideei banatu zitzaizen mozioa irakurri du. Mozioak bat egiten du genero-indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean atara zen Andreamen komunikatuarekin.

Mozioaren premiazkotasuna bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako mozio hau onartzea erabaki da:

“1999ko abenduaren 17an, NBERen Batzar Nagusiak azaroaren izendatu zuen emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna.

Emakume bat eraso denean, emakume bat gutxietsia, iraindua, xantaiatua, nahiz laidotua, bortxatua denean, gizarte osoak galtzen du ohorea.

Ezinbestekoa eta premiazkoa dugu emakumeenganako indarkeria ezabatzea. Gure gizartearen gaitz eta lotsa bihurtu den indarkeria.

Giza eskubideen defentsaren ardatzetako bat generoen arteko berdintasunaren defentsa da, eta emakumeenganako edozein indarkeria mota ezabatzea. Horixe da, inolako zalantzarik gabe, gure garai hauetako erronketako bat. Udal honek bere egiten du Andrearen adierazpena, honek duen interesagatik.

ANDREAREN KOMUNIKATUA, GENERO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA

Genero-indarkeriak hainbat modutara geri da, eta gizonen eta emakumeen artean historikoki izan den desberdintasunean ditu bere sustraiak. Indarkeria horrek adin, gizarte-klase, larruzalaren kolore nahiz planetako leku guztietakoak hartzen ditu barne.

Egoera hori irauliko badugu, herritar, profesional, elkarte, alderdi, modu batera nahiz bestera indarkeria hori pairatzen duten pertsona, ekintzaile, artista... guztien parte-hartzea ezinbestekoa izanen da, emakumeak erailtzea erabat gaitzesten dugula adierazteko. Garatu beharreko legeak garatze aldera, eta biktimen (batez ere ahulenen) babes osoa lortzeko beharrezkoak diren baliabide nahikoak eta eraginkorrak sortze aldera, eta, halaber, prebentzioaren aldeko apustua egite aldera, gatazkak konponduz, eta pertsonen arteko harreman onak landuz, berdintasuna eta tratu onak ardatz hartuta.

Bizi dugun egoera

Errealitatea oraindik ere mingarria da: 12 minuturo gizon bat atxilotzen dute tratu txarreatatik. Egunean 350 salaketa paratzen dira; % 30 gazteenak dira.

Aurten, azaroaren 21a bitartean, 67 emakume hil dituzte (horietako bi Nafarroan: Tatiele eta Nagore), eta zeharkako biktimak 16 izan dira. Milaka dira ondorio larriak, paralisia barne, pairatzen dituztenak. Nafarroan, 2001az geroztik 11 emakume hil dituzte, hainbat larriki zauritu, eta bat argitu gabe: M^a Puy Perez.

Aurten hil dituzten 67 emakume horietatik gehienek sekula ez zuten pentsatu beraiei gerta zekiekeenik halako basakeria, tratu txarrak, heriotza-mehatxuak, jelsia patologikoa... pairatu izanagatik ere. Izan ere, hain da zaila sinestea zure lagunak, bizikideak, senarrak edo zure seme-alaben aitak zu akabatzea maitasunaren izenean!

Legeak, Nafarroan, egon badaude, baina ez dira arintasunez garatzen ari. Nafarroako 2009rako aurrekontuetan, zehazki, arreta integralerako zerbitzuetarako kontu-sailak 62.425 € gutxiago ditu, eta Lizarra, Tafalla, Agoitz eta Iparrekoak oraindik sortzeko daude. Babes integralerako laguntzek 10.000 € gutxiago izanen dute. Biktimei zuzendutako larrialdietarako laguntzak ez dira deus igo. Emakumeen elkarteei eta beste erakundeei zuzendutako laguntzak 242.977 € murriztu dira.

Modu batera nahiz bestera beren egoera salatu duten emakumeen segurtasuna ez dago bermatua; izan ere, segurtasun-indar eta kidegoak ez daude hartu beharreko neurrien inguruan koordinaturik. Urrunduta egoteko aginduak nekez betetzen dira, baldin eta bestelako neurriak hartzen ez badira (besteak beste, erasotzaileen kontrol erreala egitea), eta jarraipen erreala egitea ahalbidetuko dituzten datu-base bateratuak sortzen ez badira.

Indarrean dauden baliabideetako batzuek (ekonomikoak, kasu) ez dute balio indarkeriaren testuingurutik kanpo bizi berri bat hastea erabakitzen duten emakumeentzat. Huskeriak dira; 390 € hileko. Biktima askok ezin dituzte laguntza horiek baliatu, etorkinak direlako, edo bestelako diru-sarreraren bat dutelako, oso txikia izanagatik ere.

Aurrekontuetan ez da zehaztu emakume etorkinei zuzendutako programarik.

Gizarteak, berdintasunari dagokionean, defizita izaten jarraitzen du, eta ez du tratu txarrak ematen dituztenekiko "tolerantzia zero" aplikatzen. Horrez gain, genero indarkeriari aurre egiteko hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan egiten den inbertsioa murriztu egin da 2009ko aurrekontuetan. Zehazki, 37.060 € unibertsitatean, 20.020 € beka eta ikerketa-proiektuetan. Hezkuntza Departamentuan ere ez da diru gehiago aurreikusi afera honetarako.

Gero eta **emakume** gehiagok salatzen dute egoera hori, eta modu desberdinetan. Batzuetan beren bizia arriskuan paratzen dute; izan ere, errealitateak erakusten du ez dutela eskubide berdinak, ezta arreta berdina ere, Nafarroa osoan, legeak ez baitira osoki, koordinatuki eta eremu eremu garatzen. Elkarre berriak sortzen dira, eskubideak, autoestimua eta autolaguntza indartze aldera.

Gizonak, arian-arian, hasi dira arazoari aurrez aurre begiratzen; izan ere, afera honi bizkar emateak ere sostengua ematen dio nagusikerian, boterean eta indarkerian oinarritutako gizentasun zentzugabe horri. Inoiz

baino gehiago ari dira hausnartzen gizona izateak ez duela zerikusirik matxista torturatzailerik izatearekin. Egiatzko gizonek ere negar egiten dute halako basakeriak ikusita.

Eta horrek guztiak, kontu-sail bereziak, berdintasunaren aldeko gizontaldeak, eta gaitzespen-jarrera aktiboa eskatzen ditu.

Klase politikoa eta instituzioak barneratzen ari dira genero indarkeriaren arazoa ez dela soilik emakumeena, gizarte osoarena baizik, demokrazia ezaren arazo bat, emakumeen giza eskubideak ez bermatzeak sortzen duen arazoa. Bada zerbait. Garrantzitsuena da, ordea, ez izatea azaroan soilik erabili eta aztertuko den gaia, egunerokoan baizik.

Horregatik guztiarengatik, Udal honek gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osoaren eta kolektiboaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du, eta herritarrei dei egiten die ildo berean egin dezaten lan, bai arlo publikoan, bai pribatuan."

Mozioa onartuta, Arruabarrena andreak esan du gaia horren larria izanda, ez dela nahikoa halako gertakariak gaitzestea, eta, areago, bere iritziz, onartutako testuak gogorragoa izan beharko lukeela.

Uterga andreak esan du Udalak gaiaren inguruan sor litezkeen programak diruz lagundu beharko lituzkeela.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago.

GALDE-ESKEAK

Trafiko-isunak.

Murugarren jaunak, herritarren esanak aintzat hartuta, galdetu du ea Udalak foruzainek herrian barruan trafiko-isunak jartzeko kanpainaren bat abian jarri ote duen, eta ea Udalak badakien aparkatutako ibilgailuei norbait argazkiak ateratzen jardun den.

Udalburuak azaldu du bi sentsibilizazio-kanpaina burutu direla, jendeak gaizki aparka ez dezan. Esan du, halaber, foruzainei eskatu zaiela zeharbideetan, espaloietan eta zamalanetarako guneetan aparkatzen diren autoei erreparatzea. Udalburuaren esanetan, Udalak inbertsio ahalegin handia egin du oztopo arkitektonikoak kentzen eta seinaleak jartzen. Esan du, halaber, prest dagoela gaur egun indarrean dagoen trafikoko udal-ordenantza kentzeko edo aldatzeko proposamenak eztabaidatzeko. Horrenbestez, afera Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak egingen duen hurrengo bilerara eramane du.

Ibilgailuei norbait argazkiak ateratzen aritu izanari buruz, esan du ez duela horren berri.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabost minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.